



**Irurako udala**

## **KONTRATAZIO MAHAIKO AKTA**

Iruran, bi mila eta hemeretziko martxoaren hamabian, eguerdiko hamabietan (12:00), Kontratazio Mahaia eratu da, dagokion deialdiaren arabera.

Kontratazio Mahaia honela osatu da:

**- MAHAIBURUA:**

Irurako Udaleko alkate-lehendakaria den Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea.

**-BOKALAK:**

-Iñaki Arregi Garitano (Udaleko arkitekto teknikoa)

-Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin (idazkari kontu-hartzailea)

**-IDAZKARIA:**

-Gurutze Astiasaran Soto, Udaleko administraria, idazkari funtzioak betetzen dituena.

**1º Puntua.- “Goi Aingeru Plazaren metalikozko estalkia” obraren kontratazioa.-**

Horiek horrela, mahaiko kideei jakinarazi zaie:

2019ko otsailaren 14ko 27/19 Alkatearen Dekretuaren bidez onartu zen “Goi Aingeru Plazaren metalikozko estalkia” obraren Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea eta esleitzeko prozedura irekitzea.

Obraren esleitzeko iragarkia Euskadiko Kontratazioaren Perfilean jarri da eta azken eguna proposamenak aurkezteko martxoaren 1a izan da.



## Irurako udala

Hala ere deialdia egin da eskaintzak irekitzeko ekitaldi publiko batean, Kontratazioaren Perfilean iragarki batez.

Orain lizitatzailen kartazala irekitzea dagokio eta hauek izan dira beraien proposamenak ekonomikoki:

ENPRESA KONTRAT.	PREZIOA € (bez GABE).
-PORTIKO GESTION E INGENIERIA SL	69.019,74
-URBABIL 2.000 SL	66.566
-HERRERIA EL CAMPILLO SL	71.923,01
-ARRASATE MUNTIAK S. COOP.	74.752,90
-CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	66.651,45

Eta hori ikusita dokumentazio hau zuzentzen da Kontratazio Mahaira bera aztertzeko.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, egintza eguerdiko hamabiak eta hamar minututan bukatu da. Guztiaren berri ematen dut, nik, idazkariak, goian aipatutako egun eta tokian.

**Iruran, 2019ko martxoaren 12an.**

**ALKATE-LEHENDAKARIA**



**IDAZKARIA**

